



**Hezkuntzako sailburuordearen JARRAIBIDEAK, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoiei dei egiteko direnak, IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskura ditzaten.**

174/2012 Dekretuak, irailaren 11koak, ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredia (IKT Heldutasuna) onartzen du, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatze ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen ditu. Seigarren artikuluan ezartzen du bi urterik behin, gutxienez, dei egingo zaiela ikastetxe publikoiei eta itunpekoiei, mailak egiaztatze prozesuetan parte har dezaten.

Era berean, Dekretu honetako eranskinean ezartzen diren baldintzak egiaztatu eta gero emango dela ziurtagiria esaten du. Aipatutako Dekretua, 2017ko urriaren 16ko Aginduaren bidez, Hezkuntza sailburuarena, eguneratu egin da (Azaroaren 7ko EHAA)

#### ***Deialdiaren xedea eta hartzaileak***

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoiei dei egiten zaie, IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskura ditzaten.

Hiru maila daude, eta ikastetxeek hiruretako edozeinen ziurtagiria eska dezakete, aldez aurretik aurreko maila dutela egiaztatu behar izanik gabe.

#### ***Eskabideak aurkezteko epea eta tokia***

Eskabideak aurkezteko azken eguna 2019ko azaroaren 15a izango da, egun hori barne.

Eskabideak tokiko berritzegunean aurkeztu beharko ditu ikastetxe bakoitzak.

Eskaeraren inprimakia, berriz, jarraibide hauen eranskinean azaltzen dena da.

#### ***Hautaketa Batzordea eta prozedura***

Ziurtagiria eskuratzeko eskabideei buruzko txostena egingo du, derrigor, tokiko berritzeguneko zuzendaritzak eta, gero, eskabide horiek Hautaketa Batzordeari bidaliko dizkio, txostenarekin batera.

Honako hauek izango dira Hautaketa Batzordeko kideak:



- a) Hezkuntza Berriztatzeko zerbitziburua. Bera izango da batzordeburua.
- b) Berritzegune Nagusiko aholkulari bat, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatua.
- c) Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatua. Berak egingo ditu idazkari-lanak.

Hautaketa Batzordeak, tokiko berritzeguneen balorazioa eta berak egindako balorazioa kontuan hartuz, ebazpen-proposamena bidaliko dio Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak, Hautaketa Batzordearen proposamenak ikusita, ebazpen bat emango du, eta hor zehaztuko du zein ikastetxeri emango zaion ziurtagiria eta zein mailatakoa.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren ebazpena jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratuko da ebazpen hori, jarraibide hauek argitaratu eta hurrengo egunetik sei hilabeteko epean.

Aipatutako epea pasa ondoren, aurreko paragrafoan ezarritako eran ebazpenik jakinarazi ezean, interesdunek beren eskaera atzera bota dela interpretatu ahal izango dute, urriak 1ko 39/2015 Legearen xedatutakoaren ondorioetarako, lege horrek Administrazioari berariaz ebazteko ezartzen dion betebeharraren kaltetan izan gabe.

Prozedurari bukaera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

### ***Ebazte-prozesua***

Dagokion tokiko berritzeguneak eta Hautaketa Batzordeak baloratuko dituzte eskaerak, abuztuaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskinean adierazten diren ebaluazio-tresnak erabiliz, urriaren 16ko Aginduan eguneratua.

Dagokion tokiko berritzeguneko aholkulariak, bere txostena egiteko, egin beharrekotzat jotzen dituen ekintza guztiak egingo ditu; esate baterako, ikastetxea bisitatu, ikastetxeari informazio edo dokumentazio gehigarria eskatu, etab.

### ***Jarraipena eta ebaluazioa***

Tokiko berritzegunea arduratuko da ziurtagiria lortzeko ikastetxeek behar duten prozesuaren jarraipena egitea eta aholkularitza ematea, baita ikastetxeen ebaluazio-txostena egitea ere.

### ***Datuak babestea***

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzen den bitartean jasotzen diren datu



personalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Prestakuntzako eta Berrikuntzako Proiektuak izeneko fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau eta beronekin zerikusia duen beste edozein prozedura edo administrazio-espeditente kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen diren ikastetxeei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeek baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren frogatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 29a

**Miren Maite Alonso Arana**  
**HEZKUNTZA SAILBURUORDEA**